

LAN GATAZKA. ELA, LAB, ESK eta CCOO eman diete sostengua

Greba egiteagatik kalera bota dituztela salatu dute bost garbitzailek

Lanpostuetara itzultzeko itxialdiak eta mobilizazioak egingo dira



PABLO S. QUIZA

Candido Martinez S.L. enpresak kaleratutako garbitzaileek haien postuetara itzultzea aldarrikatzen dute.

J. Senar | TRINTXERPE

ELA, LAB, CCOO eta ESK sindikatuek mobilizazioak, itxialdiak eta manifestazioak antolatu dituzte Candido Martinez S.L. enpresak kaleratutako bost garbitzaileak lanera itzultzeko asmoz. Kaleratzeak ekaina eta apirila bitartean 42 egun iraun zituen grebagatik zigor moduan egin zirela salatu zuten atzo sindikatuok, Trintxerpen eskaintak prentsaurrekoan.

Candido Martinez enpresak 80 langile ditu, eta kaleratutako bost garbitzaileetatik hiru enpresa batzordeko kideak ziren. Gainera, bostak bi sindikatutako ordezkariak ziren: hiru ESK-koak eta beste biak CCOOkoak. «Hori ez da kasualitate hutza», salatu zuen Arantxa Alonso lan-

gileetako batek. «Sektoreko sindikatuen aurkako errepresalia garbia da», gaineratu zuen.

Bost langileek adierazi zuten uztailen Candido Martinez enpresako buru eta Adel patronaleko presidentek kasu batzuetan erregulaziozko espedienteak aurkeztu zituela eta beste kasutan zuzenean kaleratu zituela, greban zehar pikete lanak egin eta haren etxearen aurka erasoak egitea egotzita.

Garbitzaileok helegiteak aurkeztuko dituzte hurrengo asteartean Donostiako gizarte galetarako epaitegiaren laugarren aretoan. Langileon arabera, Candido Martinezen argudioek ez dute funtsik, eta bere «moral bikoitza» erakusten dute, Trintxerpen hainbat kultur ekitaldi antolatu arren, oraingoan

«emakume langileen aurka rol errepresiboa jokatu duelako».

Manifestazio eta itxialdia

Hurrengo asteartea iritsi arte, atzo bost langileek Trintxerpeko Alkateordetzan itxialdia hasi zuten. Ostegun eguerdian manifestazioa leku horretatik abiatuko da, eta gaueko 9:00etan beste itxialdia egingo dute Karmengo Amaren elizaren behekaldean, larunbata arte.

Ostiralean, baita ere, hamaitaketa egingo dute, eta, asteartean, Donostian, epaitegiaren atarian, beste mobilizazioa egingo dute. Helburua langileok lanpostuetara itzultzea da.

UGTk, bestalde, ez die langileoi sostengurik eman, eta beste sindikatuen arabera, «norberak atera ditzala ondorioak».

LABURAEAN

Cepsak hiru eta bost pezeta artean merkatu du gasolina, eta bi pezeta gasolioa

Cepsa Espainiako merkatuko bigarren konpainiak 3 eta 5 pezeta artean merkatuko ditu gasolina mota desberdinak, eta beste bi pezeta gasolioa. Konpainiak argudiatu du petroliu upela egun 21 dolarretan dagoelako eta nazioarteko merkaturaren produktuen kotizazioa beherantz doalako hartu ditu neurriok. Hala, 95 oktanoko berunik gabeko gasolina 128,9 pezetatan salduko da; 98 oktanokoa 137,9 pezetatan; superra 136,9 pezetatan eta gasolioa 112,2 pezetatan.

Hiri barneko deietan 100.000 bezero lortu ditu Euskaltelek urte hasieratik

Hiri barneko deien atalean, 100.000tik gora bezero ditu Euskaltelek, enpresak atzo jakinarazi zuenez. Ohiko faktura telefonikoan erabilitako minutu guztien %70 dira deioak, eta Euskaltelen bitartez egiteak ez du ez zenbaki ez instalazio aldataririk ekartzen. Gainera, fakturazioa segundoen arabera da.

Sarenet Interneteko operadoreak bere kapitala milioi bat eurotara zabaldu du

Sarenet Interneteko operadoreak kapitala milioi bat eurotara zabaldu du. Neurri hori enpresak azken urteetan duen negozio bolumenaren aurrean egin beharreko egokitzearen ondorio izan da. Sarenet Correo Taldearen barnean dago, eta urtero %50eko hazkunde izan du. Aurten 9 milioi euro fakturaztea espero da.

Bushek 75.000 milioi dolarreko plan ekonomikoa proposatu du EEBBeko ekonomia suspertzeko

George W. Bush Estatu Batuetako presidentek 75.000 milioi dolarreko plan ekonomikoa proposatu du herrialdeko ekonomia suspertzeko asmoz, atzo Paul O'Neill Altxorreko idazkariak adierazi zuenez. Planaren asmoa, zehazki, kontsumitzaileen gastua eta enpresen inbertsioa bultzatzea da, eta baita langabeei laguntza ematea ere. O'Neillen arabera, bukatu berri den hiruhilekoan baliteke ekonomiak atzera egitea, baina galarazi egin behar da berdina gertatzea hurrengoan.

45 urteko langile bat zauritu egin da Santurtzin lau metroko alturatik erorita

Atzo goizean Barakaldoko langile bat, 45 urtekoa, zauritu egin zen Santurtzin (Bizkaia), etxe bat eraikitze lanetan zebilela lau metroko alturatik erori ostean, DYAk atzo azaldu zuenez. Goizeko 9:30ean izan zen gertaera, eta R.R.D langilea Gurutzetako ospitaleraino eramane zuten zauriak sendatzeko.

Seguros Bilbao-ko langileek kontzentrazioa egingo dute bihar zuzendaritza salatzen

Seguros Bilbao-ko enpresa batzordeak bihar goizeko 11:00etan ordubeteko kontzentrazioa deitu du konpainiako egoitzaren atarian, enpresaren hitzarmena ezeztatzen zuzendaritzak duen asmoa salatzen asmoz. CCOO sindikatuaren arabera, zuzendaritzak jarri «gogorra» agertu du negoziazio mahaian.

BURTSA. EEBBeko ekonomiak zer erakutsiko zain, urduritasuna nagusi

Behia eta aska

J.B. Andueza |

Greenspanek bere esku duen guztia egin du behia askara hurbiltzeko. Hala ere, horrek ez du ziurtatzen behiak askatik edango duenik. Keynes berak bazekien hori, eta, inbertsiogileek ere, ikusi egin nahi dute EEBBeko ekonomian inbertsioak zernolako joera hartzen duen. Mo-

mentuz, bederen, zalantza eta urduritasuna dira nagusi.


Tekno txeritxo batzuek maru egin zuten atzo. Igoerak TerraLycos (+%4,96), Zeltia (+%2,17) eta %1na pasa igo ziren Indra eta Sogecablek egin zituzten. Blue chippek ordea kale egin zuten: Repsol-YPF -%2,7, Telefonica -%1,58 eta BSCH -%1,44. Behiak edango ote du?

DATUA

Hegaldi konpainiak lur hartzen baino lurperatzen ari dira. Swissair erregaia ordaindu ezinik dagoela, bere akzioek %97ko galera izan zuten atzo. Besteak beste, Belgikako Sabenaren %49,5aren jabe da eta, honek, ordainketak eteteko baimena eskatu die epailei. Iberiak %2,44 galdu zuen.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%0,82** | Azken indizea **1.268,46** | Aurreko indizea **1.278,91**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	8.038,39 (+%0,98)
Tokio (Nikkei)	9924,2 (-%2,09)
Madril (IBEX-35)	7.245 (-%0,89)
Paris (CAC-40)	4.024,25 (-%0,5)
Londres (FTSE 100)	4.881,8 (+%1,02)
Frankfurt (DAX)	4.436,66 (+%3,08)
Milan (Mibtel)	20.771 (+%1,08)

* Eguerdian arte

Dibisen merkatua

	Euro bat
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,9209
Libra Esterlina	0,6245
100 Yen (Japonia)	11154